



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko martxoaren 28a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bosgarren belaunaldiko telefoniaren iriste goiztiarraren aldeko apustua egin dezan. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren gastuak finantza ditzan, baldin eta, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adina izanik, beste herri batzuetara joan behar badute bizi diren herrian halakorik ez dagoelako. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurren aurkako indarkeria desagerrarazteko zenbait ekintza egin ditzan. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garesko Udalarekiko hitzarmen bat idatz eta sina dezan 2020 eta 2021 urteetarako, “Gares Energía” izeneko proiektua abian jartzeko eta betetzeko behar adinako finantzazioa bermatuko duena. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluari eska diezaion Nafarroako Ezagutzaren Transferentziaren egoerari buruzko txosten bat lehenbailehen egin dezan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erripagañako BF1 lurzatian etxebizitzak eraikitzeko proposamen berria azter dezan. Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jokoaren gaineko zergetatik nahiz jokoaren arloko arau-hausteetako isunetatik heldu den diru-bilketaren % 1 bidera dezan ausazko jokoekiko mendekotasuna prebenitzera, tratatzera eta errehabilitatzera. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu Bardeako tiro poligonoan 2019ko martxoaren 25etik 29ra bitarte eginen diren maniobra militarrik. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako memoria historikoaren elkarteen lana balioesten eta aldezen baitu; bereziki, heldu den apirilaren 1ean ehortziko diren berrogei pertsonaren gorpuzkiak berreskuratzeko egindakoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekin-tza Astearekin bat egiten baitu, eta bere egiten baitu “Hezkuntza aldezen dugu, munduari eusten diogu” goiburua. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, familia gurasobakarrei eta familia ugariei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Mahaiaren 2018ko azaroaren 19ko erabakia aldatzea, zeinaren bidez 2019ko lan-egutegia onetsi baitzen (13. or.).
- Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bosgarren belaunaldiko telefoniaren iriste goiztiarraren aldeko apustua egin dezan.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2019ko martxoaren 20an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bosgarren belaunaldiko telefoniaren iriste goiztiarraren aldeko apustua egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Apustu sendoa egin dezan bosgarren belaunaldiko telefonia Nafarroara laster hel dadin; hartara, asmotan hartuko da hura garatzea Banda Zabala lurralde osoan hedatzen ari den modu

berean: transbertsalki, plan estrategikoetan kon-tuan hartuz eta zeresana duten eragile nagusieki-ko harremana ezarriz.

– Nafarroako Gobernuaren telekomunikazio arloko hurrengo lizitazioetan jaso dezan har-tzailearen konpromisoa, Nafarroako lurraldean 5G teknologia ezartzekoa, epeak eta estaldura zehaztuta.

– 5G ekartzeari buruzko informazio, sustapen eta babes ekintzak egin ditzan inplikatur dauden guztiekin, Nafarroa teknologia horretan aitzindari izan dadin eta erakargarriak izan gaitezen tekno-logia laster heltzeari begira, Foru Komunitatearen industria-, hezkuntza- eta teknologia-posizona-menduaren mesedetan”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren gastuak finantza ditzan, baldin eta, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adina izanik, beste herri batzuetara joan behar badute bizi diren herrian halakorik ez dagoelako.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2019ko martxoaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren gastuak finantza ditzan, baldin eta, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adina izanik, beste herri batzuetara joan behar badute bizi diren herrian halakorik ez dagoelako”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasle guztien garraio-zerbitzuaren gastuak finantza ditzan, baldin eta, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adina izanik, beste herri batzuetara joan behar badute bizi diren herrian Oinarrizko Lanbide Heziketarik ez dagoelako.

2. Hartu beharreko neurriak har ditzan garraio-zerbitzu hori abian jarri ahal izateko”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurren aurkako indarkeria desagerrarazteko zenbait ekintza egin ditzan.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2019ko martxoaren 20an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurren aurkako indarkeria desagerrarazteko zenbait ekintza egin ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Aldiro sentsibilizazio-kanpaina publikoak presta eta abiaraz ditzan.

2. Ohiko moduan adingabeekin lanean diharduten profesionalak ugaritu ditzan eta haiei prestakuntza eman diezaien indarkeriaren prebentzioan eta detekzioan.

3. Programa berezi gehiago gara ditzan, ikastetxeetan edozein indarkeria-kasuren prebentzioa eta detekzioa eta horren aurrean nola jokatu jorratzeko.

4. Udal eta kontzejuekin ados dezan adingabeei eta nerabeei gune seguruak eskueran jartzeari, etxean edo eskolan ez daudenerako.

5. Neskatoak babesteko neurri zehatzak gara ditzan, kolektibo hori baita gehien pairatzen duena indarkeria. Zehazki, sexu-esplotazioa, haurtzaroko ezkontza edo genitalen ebaketa bezalako erasoan aurrean.

6. Bereziki ahulak diren beste talde batzuentzako babes berezia: adingabe desgaituak; gurasoen zaintzarik gabekoak edo zaintza hori galtzeko arriskuan daudenak; bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; LGTBI kolektiboak edo behartsu direnak; arrisku-egoeran dauden familietako adingabeak edo administrazioaren tutoretzapekoak.

7. Espainiako Gobernua premia dezan haurren aurkako sexu-delituen preskripzioa alda dezan, halako moldez non kontaketa eginen baita biktimak 30 urte betetzen dituenetik aurrera, eta ez, orain arte bezala, 18 urteko adinetik aurrera. Eta justizia-sistema egokitu dezan haurren beharretara, epaiketa-prozesuak haiek berriro biktimitza ditzan ekiditeko”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garesko Udalarekiko hitzarmen bat idatz eta sina dezan 2020 eta 2021 urteetarako, “Gares Energía” izeneko proiektua abian jartzeko eta betetzeko behar adinako finantzazioa bermatuko duena.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2019ko martxoaren 22an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garesko Udalarekiko hitzarmen bat idatz eta sina dezan 2020 eta 2021 urteetarako, “Gares Energía” izeneko proiektua abian jartzeko eta betetzeko behar adinako finantzazioa bermatuko duena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio trantsizio energetikoaren arloan aitzindaria den “Gares energía” proiektuari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Garapen Ekonomikorako lehendakariordearen bidez idatz eta sina dezan Garesko Udalarekiko hitzarmen bat, 2020. eta 2021. urteetarako, behar adinako finantzazioa bermatuko duena “Gares Energía” proiektua abian jartzeko eta betetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratu dezan Garesko Udalak sustatutako “Gares Energía” proiektua”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluari eska diezaion Nafarroako Ezagutzaren Transferentziaren egoerari buruzko txosten bat lehenbailehen egin dezan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2019ko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluari eska diezaion Nafarroako Ezagutzaren Transferentziaren egoerari buruzko txosten bat lehenbailehen egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluari eska diezaion Nafarroako Ezagutzaren Transferentziaren egoerari buruzko txosten bat lehenbailehen egiteko, zeinean aztertuko baita zenbateraino bete den Zientziari eta Teknologiar buruzko Foru Legean nahiz 2017tik 2020ra bitarteko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean ezarritakoa.

– Nafarroako Ezagutzaren Transferentziaren nondik norakoak eta betebeharrak ezarriko dituen erregelamendu-xedapen bat eman dezan, Zientziari eta Teknologiar buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, halako moduan non prozesuaren guztiontzako onura eta Nafarroako herritarrengan duen eragina ziurtatuko baitira.

– Nafarroako unibertsitateetatik edo teknologia zentroetatik sortzen diren ikerkuntza-proiektuak Ezagutzaren Transferentziaren eskutan jartzeko pizgarri ekonomikoak paratzea; batez ere, patentatzen direnak.

– Nafarroako Ezagutzaren Transferentzia nazioartera hedatzen laguntzea; hartara, bere izaeragatik gure lurraldean ez dauden enpresen ekimenei prozesuan parte hartzea ahalbidetuko zaie”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erripagañako BF1 lurzatian etxebizitzak eraikitzeke proposamen berria azter dezan.

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Erripagañako BF1 lurzatian etxebizitzak eraikitzeke proposamen berria azter dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Erripagañako Udalez gaindiko Plan Sektorialeko BFI lurzatian (Iruña AR-1 5. poligonoko 2544 katastroko lurzatian) etxebizitzak eraikitzea aurreikusten da, non eta batez beste % 30eko malda duen mazela batean, horrek berekin dakarren arriskuarekin, eraikuntza-gastu hazkuntzarekin...

Halaber, sustatzaile pribatu batek Erripagañako Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzea aurreikusten da (AR-2 merkataritza-arloa), halako moduan non merkataritzara, aisiara eta ostalaritza bideratutako azalera % 100ekoa izatetik % 30ekoa soilik izatera igaroko baita, gainerakoa 450 etxebizitza eraikitza bideratuko bailitzateke (horietako 318, etxebizitza babestuak izanen lirateke).

Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketa hori dela-eta, proposamen alternatiboak aurkeztu dira merkataritza-arloaren aldaketari dagokionez, zeinen diseinu berriak ahalbidetzen baitu BFI lurzatian eraiki nahi diren etxebizitzak AR2 bizitegi-eremu berrira eramatea eta, are, etxebizitza sozialen kopurua (40 inguru) nabarmen handitzea eta Nafarroako Gobernuak aldeztutako beste irizpide batzuk errespetatzea; honako hauek hain zuzen ere:

– Belosoko Hegoaldeko Erripa bizilagunen-tzako paisaia- eta aisia-leku gisa errespetatzea, Iruña Erripagaña auzo jasangarriagoa izan dadin.

– Iruña Erripagañan gaurko egunean dagoen gehiegizko etxebizitza-kopurua eta biztanle-dentsitatea arintzea.

– BFI mazela batean eraikitzeak –eta ez zero kota batean (AR2)– herritarrentzat dakartzan gain-kostuak eta arriskuak ekiditea.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du proposamen berria azter dezan BFI lurzatian etxebizitza berriak eraiki baino lehen, honako lau helburu hauek lortzeko:

– Gizarte-alkairuko etxebizitza gehiago.

– Belosoko Hegoaldeko Erripako natur-inguru-nea errespetatzea.

– Udalez gaindiko Plan Sektorialak etxebizitzen banaketari dagokionez plan osoan aldarrikatutako uniformetasun handiagoa bilatzea. Iruña Erripagañan ematen den masifikazioa ekiditea.

– Mazeletan edozein eraikin eraikitzeak dakarren gailurak ekiditea.

Hori guztia, Udalez gaindiko Plan Sektorialaren oinarriak errespetatuz eta are helburuak hobetuz egingen da, onura soziala handiago izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Erripagañako Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzea susta dezan, proiektu honetan zehar egin duen gisa, merkataritza-eremuaren sustatzaile pribatuak eskatu duen moduan, lorpen sozial handiagoak izateko eta ingurumenaren babesa areagotzeko, proposamen berriak horretarako bidea ematen baitu.

Iruñean, 2019ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jokoaren gaineko zergetatik nahiz jokoaren arloko arau-hausteetako isunetatik heldu den diru-bilketaren % 1 bidera dezan ausazko jokoekiko mende-kotasuna prebenitzera, tratatzera eta errehabilitatzera.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jokoaren gaineko zergetatik nahiz jokoaren arloko arau-hausteetako isunetatik heldu den diru-bilketaren % 1 bidera dezan ausazko jokoekiko mende-kotasuna prebenitzera, tratatzera eta errehabilitatzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

1992an, Osasunaren Mundu Erakundeak ludopatia nahasmendu bat dela aitortu zuen, eta gaitasunen nazioarteko sailkapenean sartu zuen. Zenbait urte geroago Nahasmendu Mentalen Gidaliburu Diagnostiko eta Estatistikoak substantziarik gabeko benetako adikzio gisa identifikatu zuen ludopatia. Gaur egun, saiakuntza kliniko askok frogatzen dute eragin larria duela norbanakoarengan ez ezik, haren ingurunean ere –familia, lana, lagunak–, eta gaixoarengandik harago doazen ondorio ekonomiko eta emozionalak dauzkala. Substantziarik gabeko droga.

Ez dugu gure komunitatean jokoaren eta apustuen arloak gaur egun duen errealitateari buruzko diagnostikoa. Nola egin den eta zer irizpideren arabera onetsi zen 2018ko urrian, mozio bateko 4. puntuan.

Azken urteetako datu batzuk baditugu. 2016ko maiatzean argitaratutako inkesta, “Gazteak eta osasuna” deiturikoa. Bertan hainbat datu ematen ziren, haietako batzuk kezagarriak. Esate baterako, 14tik 29 urtera bitarteko gazteetatik ehuneko 33,2k diote apustu horiek egiten dituztela eta horretarako, gehienetan, kirol apustuen lokalak baliatzen dituztela. Halaber, generoaren arabera joera bat dago: zenbait adin-tartetan gizonezkoen kopurua emakumezkoenaren halako hiru izan daiteke.

Beste alde batetik, ludopatiak ukitutakoen elkarrekin ohartarazi dute jokoarekiko adikzioengatik altak inoiz ez bezala igo direla erabiltzaileen artean, eta hedabideetan nola gizartean, oro har, erraz atzematen da kezka dagoela jarduera horren hazkundeak ekar ditzakeen ondorioengatik.

Joko patologikoan eta portaera-adikzioetan hainbat adituk azaltzen dutenez, publizitateak eragina du, batez ere, bi kolektibo zaurgarritan: “Alde batetik, haurrak eta nerabeak, eta beste alde batetik jadanik jokoarekiko jokabide arazotsua dutenak”; hedabideak dira, nahitaez, era egokian arautu behar ditugun ardatz nagusietako bat, pertsona zaurgarrienen eskubidea babeste aldera.

Lehenago ere dira gisa horretako arau eta mugak ezarri dira hedabideetan alkoholari eta tabakoari dagokienez; izan ere, substantzia horiek, nahiz eta legezkoak izan, gizartean nahi gabeko eraginak izaten dituzte, eta gaur egun eskura ditugun datuek enpirikoki erakusten dutenez, murrizketa horiek ekarri dute nabarmen jais-tea substantzia horiekiko adikzioa dutenen kopurua, eta jendearen osasuna, oro har, hobetzea.

Garrantzitsua da administrazio publikoek erabakitasunez aurre egin diezaioten egoerari, munta handiko arazo sozial bihur daitekeelako.

Eta hori guztia zeharkakotasunez egitea, hainbat departamenturen artean.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, jokoaren gaineko zergetatik, Nafarroako Foru Komunitatean Jokoaren gaineko Tributuak arautzen dituen abenduaren

28ko 27/2016 Foru Legean biltzen diren horietatik, nahiz jokoaren arloko arau-hausteetako isunetatik heldu den diru-bilketaren % 1 bidera dezan ausazko jokoekiko mendekotasuna prebenitzera, tratatzera eta errehabilitatzera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bere eskumenerako hedabideetan ez dadin publizitaterik egin, baldin eta zuzenean edo zeharka online jokoak, joko aretoak edo apustu etxeak sustatzen baditu, edozein dela ere kasuko ordutegia edo programazioa. Irizpide bera erabiliko da gure erkidegoko kirol taldeekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, joko aretoen lurralde-erazpena arautu dezan, halako moduz non ez diren metatuko edo ezarriko arrisku bereziko lekuetan, ondoan edukitzeagatik ludopatendako terapia-zentroak, ikastetxeak (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, NUP) eta abar.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, jokoaren gaineko informazioa sar dezan adikzioei eta prebentzioari buruzko eskola-kanpainetan.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, zerbitzuen zorroan sar ditzan adikzioetarako laguntza eta joko patologiko-

ak ukitutako pertsonei eta haien familiei sorrarazten dizkien arazoetarako arreta. Laguntza azkar eta eraginkorra bermatzea jokoarekiko adikzioa izateagatik hala eskatzen dutenei, deribazioak ahalbidetuz oinarritzko osasun laguntzatik, itxarote-zerrendak murriztuz.

Harrerako baliabide egokiak bermatzea jokoarekiko adikzioa duten emakumeei, indarkeria matxisten biktima direnean.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jokoaren gaia sar dezan osasun-behatokian.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Berdintasunerako Institutua eta Kirol eta Gazteria Departamentua sar ditzan 2018ko urrian onetsi zen berriazko lantaldean. Azterlan eta proposamen guztiek eduki beharko dute genero-inpaktuari buruzko txostena.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, apustuen eta jokoaren kontrolari buruzko irizpideak sar ditzan kontratazio- eta dirulaguntza-klausuletan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baititu Bardeako tiro-poligonoan 2019ko martxoaren 25etik 29ra bitarte eginen diren maniobra militarrik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditu Bardeako tiro-poligonoan “Sirio 19” operazioaren baitan 2019ko martxoaren 25etik 29ra bitarte eginen diren maniobra militarrik.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro ere dio Bardeako tiro-poligonoa ixtearen alde dagoela”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako memoria historikoaren elkarteen lana balioesten eta aldeztu baitu; bereziki, heldu den apirilaren 1ean ehortziko diren berrogei pertsonaren gorpuzkiak berreskuratzeko egindakoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako memoria historikoaren elkarteen lana balioesten eta aldeztu du; bereziki, heldu den apirilaren 1ean Iruñeko hilerrian ehortziko diren berrogei pertsonaren gorpuzkiak berreskuratzeko egindakoa.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro dio aldeztu egiten duela Nafarroako Gobernuak bidez-bazterretan eta hilobietan galduta jarraitzen duten gorpuzkiak berreskuratzeko lan egiten jarrai dezan, bai eta 40 pertsona horien gorpuzkiak nahiz oraindik ere identifikatu gabe daudenenak norenak diren jakiteko ere”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astearekin bat egiten baitu, eta bere egiten baitu “Hezkuntza aldezten dugu, munduari eusten diogu” goiburua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astearekin bat egiten du, eta bere egiten du “Hezkuntza aldezten dugu, munduari eusten diogu” goiburua.

– Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak Garapenerako Laguntza Ofiziala % 0,7koa izatearen konpromisoa berreskuratzeko, eta gutxienez ere horren % 8 bidera dezaten hezkuntzara. Laguntza hori funtsezkoa da giza eskubideak sustatzeko eta mundu osoan garapen jasangarria lortzeko. Guztiontzako kalitatezko hezkuntzarik gabe ez dago garapen jasangaririk.

– Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da eskola-curriculumetan ingurumenaren jasangarritasunerako hezkuntza sar dadin, bai Espainian bai herrialde txirotuetan, lankidetzarako gure politiken bidez.

– Nafarroako Parlamentuaren ustez, ezinbestekoa da Administrazio Publikoek ingurumenaren nahiz gizartearen jasangarritasuneraren arloko prestakuntza-proiektuak –hezkuntza erkidego guztiei bideratuak– sustatzea eta finantzatzea.

Beharrezkoa da, halaber, ikastetxeen “kudeaketa berdea” indartzea, hezkuntza-sektorea eta

administrazio publikoak ingurumenaren kudeaketaren eredu izan daitezen.

– Nafarroako Parlamentuak dio beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak neurriak har ditzaten jasangarritasun soziala bultzatzeko, ekitatea lortzea, pobrezia desagerraraztea eta pertsona guztiek hazkuntza ekonomiko jasangarria baliatzea bilatzeko.

– Nafarroako Parlamentuk bere konpromisoa adierazten du 2030eko Agendaren helburu guztiak –bereziki, hezkuntzaren arlokoak– finantzatzeko behar adinako aurrekontu bat bermatzeko Nafarroan, halako moduan non Garapenerako Laguntza Ofizialak krisia baino lehenagoko aurrekontuak berreskuratuko baititu eta hezkuntzan eginiko gastu publikoa hobetuko baita.

– Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak konpromiso horiekin eta 2030eko Agendaren helburuen garapenerekin bat egitea eta 2019an apustu irmoa egitea Garapenerako Laguntza Ofizialean % 0,7ko inbertsioa berreskuratuzeko.

– Nafarroako Parlamentuak dio kalitatezko hezkuntza inklusibo baterako eskubidea defendatzean Garapen Jasangarriko Helburuen 2030eko Agendan ezarritako xedeak bete daitezen laguntzeaz gain mundua eta gizartea bizigarriagoak izan daitezen lortzen dela”.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, familia gurasobakarrei eta familia ugariei buruzkoa.*MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, familia gurasobakarrei eta familia ugariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zenbatu al duzue guraso bakarreko zenbat etxe seme-alabadun dagoen Nafarroan? Eman, mesedez, datu eguneratuak. Eta familiaburuaren sexuaren araberakoak.

– Familia gurasobakarrei buruzko Legearen gaineko informazio-eskaerarik jaso al duzue? Zenbat kontsulta? Zer kontsulta-mota? Zein izan da erantzuna?

– Familia ugariaren zenbat titulu dago indarrean une honetan? Eman datuak mailaren, berri-tzeen eta titulu berrien arabera sailkatuta. Zenbat familiak mantendu dute Bereziaren maila errenta dela-eta nahiz eta seme-alaba kopuruaren arabera maila orokorrekoak izatera igaro behar ziren?

– Familia gurasobakarrentzako laguntzei buruzko informazio-eskaerarik jaso al duzue? 2018an eskatutako laguntzei buruzko datuak jaso nahi ditut: emandakoak (zenbatekoa) eta ukatutakoak. Familia onuradunen kopurua eta ukatu diren kopurua. Ukatzeko arrazoia.

Iruñean, 2019ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2018ko azaroaren 19ko erabakia aldatzea, zeinaren bidez 2019ko lan-egutegia onetsi baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak eskatu du hauteskundeak deitzeko foru dekretua onesten denetik Parlamentu berria eratu bitarteko lan-ordutegia goizekoa izan dadila, betiere zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute.

Parlamentuko ordezkarien eta Parlamentuko Langileen Batzordearen arteko 2002. eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2 apartatuarekin, indarrean den Hitzarmeneko 10. apartatuarekin eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatu-tuaren 37. artikuluekin bat etorritz, hona ERABAKIA:

1. Mahaiaren 2018ko azaroaren 19ko erabakia aldatzea, zeinaren bidez 2019ko lan-egutegia

onetsi baitzen, eta 2. bis apartatu berri bat sartzea. Hona testua:

“2. bis. 2019ko apirilaren 2tik Parlamentu berria eratu aurreko asteko astelehenera bitarteko lan-ordutegia goizekoa izanen da”.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2018ko azaroaren 19ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2019ko apirilaren 2tik Parlamentu berria eratu aurreko asteko astelehenera bitartean 09:00etatik 14:30era egonen da zabalik.

3. Legelari Nagusia baimentzea argibideak emateko erabaki honen inguruan inongo zalan-tzarik sortzekotan.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita merezimenduen lehiaketa bidez gelazain nagusiaren burutza betetzearen inguruan Zerbitzu Orokorretako buruak eta Zerbitzu Juridikoek emandako txostena, eta baita Kontu-hartzaitzak horri buruz emandako kreditu-ziurtagiria ere, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumenen arabera, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea.

2. Agintzea deialdi hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuko web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2019ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

